



John AMIS | AFP

IKUSMIRA

INKUBAGAILU IZAN NAHI EZ DUTEN ESTATUBATUARRAK

Epaille kontserbadoreek, abortua debekatuta, AEBeta-ko milaka emakumeren osasuna egoera arriskutsuan ipini dutela salatu du Leana Wen doktoreak, "Time" aldizkariaren arabera mundu osoan eragin handiena duten ehun pertsonen artean dagoen medikuak. Berak zuzentzen du Planned Parenthood erakundea, abor-

tuak egiteko herritar pobreenek beren esku duten baliabide nagusia. «Trumpek, Pence presidentordeak eta emakumeen aurkako beraien armadak plan distopiko bat dute buruan –adierazi du Wenek–. Lehen urratsa emakumeen gorputzen kontrola politikariei emateko prest dauden epai-leak izendatzea da. Bigarrena, lege arriskutsuak aurrera aterako dituzten politikariak aukeratzea. Eta hirugarrena, Alabamakoa bezalako legeak onartzea. Isilik ez garela geratuko esateko elkartu gara kalean». Zer nahi duten garbi uzteko, manifestari asko "Neskamearen ipuina" telesaileko protagonistak bezala jantzita parte hartzen ari da protestaldietan. joseangel.oria@gaur8.info